



Asteasuko Urkidi baserria erre eta hildako bat izan da sutean

GOIZ ▶ Goizeko zortzietan ohartu ziren ganbara sutan zegoela, baina ezin izan zuten ezer egin itzaltzeko

LANGILEA ▶ Hildakoa baserriko langilea zen; hamarrak aldera aurkitu zuten suhiltzaileek ▶ 4



Asteasuko Urkidi baserria sutan, atzo; bi etxebizitza zituen eta batean Iñaki Amenabar alkatearen familia bizi zen. GARAZI AZKUE

TOLOSA ▶

Xabi Alonso, oraindik txuri-urdirin

Ez da adostasunik lortu Real Madrilekin fitxaketarako ▶ 2

TOLOSA ▶

Pako Eguna, izango dute bihar haur eta gazteek

Hainbat ekitaldi antolatu ditu Gazte Gunek ▶ 2

OREXA ▶



DANI GIBELALDE

ARESO ▶

Baserria gogoan izango dute asteburuko kultur ekitaldietan; igandean, omenaldia baserritarrei

Bihar haurrentzako ekitaldiak izango dira; etzi, berriz,azienda erakusketa, dantzariak, kirolak eta bazkaria ▶ 7



Azienda batzuk. J.ASTIBIA

**KZgune
berria abian
jarri dute
herrian** ▶ 6

HEZKUNTZA ▶

Ikasturte amaierako festa bihar Hirukiden

Hirukiden ikasturte amaierako festa egingo dute bihar, egun osoan. Eskolapioetan: eukaristia, 11:00etan; gazte-lu puzgariak, jokoak, tailek eta kirolak 12:00etan; 12:30ean, antzerkia; bazkaria, 14:00etan; 15:30etik aurrera, mus txapelketa, puzgariak, kirolak, antzerkia eta ikasleen saioak; 17:00etan, Kiki, Koko eta Moko pailazokak; eta gero buruhandiak.

POLITIKA ▶

Zurutuzaren estraditazioa agindu dute

Josean Zurutuza Espainiara estraditatzeko agindu zuen atzo Paueko Gorteak. Martxoan estraditazioaren aurkako helegitea aurkeztu zuen tolosarrak, baina atzera bota dute. Zurutuza frantses herritartasuna du, eta Espainiara estraditatuak lehen kasua da; senitartekoen iritziz, «aurrekari larria». Zurutuza otsailaren 4an atxilotu zuten, Biriatur (Lapurdi).



Josean Zurutuza. HITZA

HEZKUNTZA ▶

Arramele-San Blas ibilaldi kulturala HHIn

Xakobeoa aitzakizat hartuta, Arramele-San Blas ibilaldi kulturala antolatatu du biharko Helduen Hezkuntza Iraunkorrrak (HHI). Ordu eta erdiko ibilalditxoak izango da; Donejakue bidea eginez, herriko hainbat leku aipagarri bisitatu dituzte ikasleek. Mikel Garaikoetxea mendizalea izango dute gidari. 15:00etan abiatuko dira guztiak, Arrameleko zubitik.

ZEZENAK ▶

Sanjoanetako zezenketetarako sarrerak salgai

San Joan jaietan izango diren zezenketetarako sarrerak salgai dira jada herriko hainbat lekutan. Nahi duenak 66 eta Astesuarra tabernetan, Orue erretegiaren eta Triangulo kafetegian eros ditzake. Toros Tolosako Zezenak elkarteak bazkideek, bestalde, Banco Atlanticoren egoitzan jaso ditzakete (Lopez Mendizabal, 1), goizetan, hilaren 18a bitarte.

FUTBOLA ▶

Xabi Alonso, oraindik txuri-urdin

Real Madrilek «jokalaria merezi bezala baloratzen ez» duela dio Realak

LEIRE MONTES

Realeko jokalaria da oraingoz Xabi Alonso tolosarra. Herenegun eta atzo hainbat aldiz bildu diren arren, Realaren eta Real Madrilen artean ez dago adostasunik. 12 milioi euro eskaini ditu Real Madrilek, baina kopuru hori «gutxiegi» dela dio Realak.

Jose Luis Astiazaran Realeko lehendakariaren iritziz, «desadostasun ekonomiko handiak daude, baina ez gandezinak. Desberdintasunik ere badago guretzat Xabi Alonsok balio duenaren eta Real Madrilek uste duenaren artean. Madrilek kopuru horretara ezin dela iritsi dio, baina guk kontrakoa uste dugu».

Xabi Alonso Espainiako selekzioarekin da, Portugalen,



Xabi Alonso. LEIRE MONTES

Eurocoparen atarian. «Oraingoz, nik dakidala behintzat, ez dut ezer sinatuko Madrilekin», adierazi zuen han.

Egun garrantzitsua izan daiteke gaurko afera honetan. Izan ere, Florentino Perez Real Madrileko lehendakariak dimisioa aurrerik itxi nahi du operazioa, berrautaketara aurkeztu ahal izateko.

MUSIKA ▶

Betizu talde berriaren kontzertua, bihar

Estraineko saioa izango da; Elene Arandia ibartarra da taldekideetako bat

L. MONTES

Joan den asteburuan Bilbon aurkezpena egin ondoren, estraineko kontzertua eskainiko du bihar Tolosan Betizuko talde berriak. Tolosaldeko ordezkariak ere badu, gainera: Elene Arandia ibartarra.

Ikuskizuna 19:00etan hasiko da, Leidorren. Sarrerak salgai daude oraindik Kultur Etxean, 9 euro-tan.

Ero Etxe elkarteak antolatatu du emanaldia, 25. urteurreneko ospakizunen baitan. Hasiera batean duela bi aste zen egitekoa kontzertua; lehengo emanaldirako sarrerak dituztenei biharkorako berdinduta berdin balio dietela azaldu dute elkarteek.

HIRUGARREN ADINA ▶



Harizpe elkarteak omenduko dituen sei bazkideetako bost. HARIZPE

Bazkiderik zaharrenak omenduko ditu Harizpek

Hilaren 19an egingo dute; bazkarirako izena emateko epea zabalik da elkartearen

L. MONTES

Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkarteak bazkiderik zaharrenak omenduko ditu, hilaren 19an. Hauexek izango dira, hain zuzen ere, sei omenduak: Victoriana Agirre, Ramon Iraola, Brigida Alberdi, Francisco Alustiza, Jose Oreja eta Pilar Gabarain.

11:30ean hasiko dira ospakizunak: Imanol Aldaregia Tolo-

sako parrokoak eskainita, meza ospatuko dute Jesusen Zerbitzarien elizatzon. Ondoren, mokadutxo zerbitzatutako zaiei omenduei Harizpe elkartearen. 14:30ean, berriz, bazkaria egingo dute guztiek Fronton jatetxean; Iribarren taldeak jarriko du ondoren dantzarako giroa.

Bazkarirako izena emateko aukera zabalik jarraitzen du Harizpen, 22 eurotan.

AISIALDIA ▶

Pako, urteroko egun handia

III. Pako Eguna ospatuko dute haurrek eta gaztetxoek bihar; Gazte Guneko kideek askotariko ekitaldiak prestatu dituzte



Parke Jurasikoan izango da bihar Pako eguna egun osoan; edonork hartu ahal izango du parte. HITZA

IRATXE ETXEBESTE

Ez da Pako eguna. Ez eta Pakoren eguna ere. Pako Eguna da. Bai. Pako egun handia izango da biharkoa, beste behin, egun hori antolatuta dutelako Tolosako aisialdi taldeetako arduradunek herriko kale hezitzaileekin batean. Pako ez da pertsona bat, ez da pertsonaia, ez animalia. Pako herriko leku bat da. Gehienak jakinaren gainean izango dira honezkerok, baina ez dakitenentzat, horra azalpena: Santa Maria ondoko plazatxoa da Pako. Helduenek Parke Jurasikoa deitzen dioten horixe; bada gaztetxoek Pako esaten diote.

Eta haiantzako egindako eguna denez gero, antolatzaileek izen horixe hautatu zuten orain lau urte Parke Jurasikoan egitekoa zen jairako. Orduan egin zuten lehenengoz, eta urtero mantendu dute harrezkerok festa eguna. Betiere leku horretan eginen dituzte parte-hartzaileek ekintza nagusiak, baina herriko beste gune batzuetara ere zabaldu izan dute jaiak. Aurten, besteak beste, zeharkaldia egingo dute patinekin —horixe izango da Pakon egungo ez den ekintza bakarra—.

Pako Eguna uda aldean egingen den lehenengo aldia da, bestalde. Orain arte udazkenean eginen zuten, eta noiz edo noiz negu partean ere egin izan dute. Jaiak ekainera pasatu izanak badu, hain zuzen ere, arrazoirik: alde batetik, gaztetxoek

azterketak izaten zituzten urte sasoi hartan, eta, gainera, eguraldiak ez zuen batere laguntzen jaialdiko ekitaldiez behar bezala gozatzeko. Bihar ez dute ziurrenik halako arazorik izango, eskualdeko haur eta gaztetxo gehienek amaitzear dutelako ikasturtea eta eurriak nekeak oztopatuko duelako bihar, ondo bidean, haien jai eguna.

Askotariko ekintzak Pakon

Parke Jurasikoa herrian gehiago ezagutzeko helburuarekin sortu zuten antolatzaileek Pako eguna lehenengoz. Orduetik aldatuta ugari izan ditu leku horrek —zuhaitzak kendu egin zituzten, sare itxurako jolasparkea jarri zuten...—, eta gero eta jende gehiagok ezagutzea agian ez, baina haurren eta gaztetxoaren artean egun erreferentziala izatea lortu dute lau urteotan antolatzaileek.

Txandakatuz egingen dituzte herriko aisialdi taldeetako arduradunek prestaketa lanak, eta aurten Gazte Guneko kideak izan dira antolatzaile gisa aritu direnak, «haurrei eta gazteei ekintza ezberdinez osatutako egun berezia emateko». Hori bai, aisialdi taldeetako arduradunen eta kideen laguntza izango dute bihar ekintza guztiak aurrera eramateko.

Askotariko ekintzak prestatu dituzte antolatzaileek egun osoarako. Edonork izango du aukera bertan parte hartzeko; bertara gerturatu, bestetik ez

EGITARAUA ▶

Pako Egunerako hainbat ekimen prestatu dituzte Gazte Guneko kideek. Goizetik hasi, eta iluntzera bitarte, txikien eta helduagoek izango dute gozatzeko aukera. Hona hemen ekitaldiak, orduz ordu:

- 10:30.** Basket a tres jokoa, Parke Jurasikoan.
- 11:00.** Rokodromoa, Parke Jurasikoan.
- 12:00.** Esgrima, Parke Jurasikoan.
- 14:00.** Bazkaria Pakon (eguraldi ona eginez gero).
- 16:00ak** arte izango dute haurrek eta gazteek bazkaltzeko aukera.
- 16:00.** Patinekin itzulia Rondilla kaletik.
- 17:30.** Patinen gaineko hockey-a, txikienentzat.
- 17:30.** Skate park, helduagoentzat.
- 18:30.** Graffitiak.
- 18:30.** Mural margoketa eskuekin, txikienentzat.

da egin behar horretarako. Herriari itzulia egiteko patinak, monopatinak, patineteak... erabil daitezkeela esan dute antolatzaileek; irteera ordua 16:00etan izango da, Arramaleko zubitik. Gainerako ekintzak Pakon izango dira, eta egun osoan musika izango da bertan. Hala nahi izatera, «pin-txatzeko aukera ere» izango dute gaztetxoek.

HITZA eskualdeko plaza

- ▶ Interesgarria
- ▶ Zabala
- ▶ Parte-hartzailea
- ▶ Baterakoia

Egin zaitez HITZAren harpidedun!

HITZA egunkaria goizero zure etxeko buzoian jasotzeaz gain, harpidedun izateak dituen abantailek gozatzeko aukera ere izango duzu.

HITZA egunkariak bere harpidedunen artean zozketak, eskualdeko komertzioetan beharpenak... eskainiko ditu.

943 30 43 46

▶ Harpidetza saila / Arreta telefonoa: ostegunetan (08:30etik 20:30era) larunbatetan (9:00etatik 13:00etara)

tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

ASTEASU ▶ GIZARTEA

GARAIZ AZKUE

Asteasuko Urkidi baserria erre zen atzo goizean eta bertan lan egiten zuen 54 urteko asteasuara hil da.

Sutea goizeko zortziak alde-ra hasi zen. Baserriaren bi bizitza-tako batean piztu zen sua, etxeko ganbaran; ondoko bizitza-tzako familia ohartu zen suteaz. Iñaki Amenabar, Asteasuko alkatea bizi zen, familiarekin batera, Urkidi baserriko etxebizitzetako batean.

Hildako gizonezkoa Asteasuko Bulano baserrian bizi zen eta Urkidi baserrian egiten zuen lan, bertako maizterrentzat.

P.A.G. egunero joaten zen 7:50ak inguruan bertara lanak egitera eta han zeuden animaliak zaintzera. Suteaz ohartu bezain pronto Amenabar familiakoak langilea abisatzera joan ziren baina ez zuten ezer egiterik izan, ondoko etxebizitzako ateak itxita baitzeuden. Bizilagunek goizean ikusi zuten langilea Urkidira iristen eta autoa ere bertan zen piztu zenean.

Sua hasi eta berehala bildu ziren auzokoak, atzeko atea bota eta etxera sartu ziren langilearen bila, baina suak ez ziren aurrera egiten utzi. Baserriaren zeuden bi etxeetako 25 bat abelburu barrutik ateratzea lortu zuten azkenean.

10 minututan erreta

Iñaki Amenabar berak deitu zuen larrialdietara, eta berehala agertu ziren suhiltzaileak, «eskertzekoa da suhiltzaileek izan duten azkartasuna, deitu eta hamar minutura hemen zeuden», zioen Amenabarrek. Suhiltzaileen bi kamioi gerturatu ziren Urkidi baserriara sua itzaltzera.

Dena dela, sua segituan za-



Sua etxeko ganbaran hasi zen eta oso azkar pasatu zen Amenabartarren etxera; ganbara eta bigarren pisua guztiz kiskalita gelditu dira. G. AZKUE

Asteasuko Urkidi baserria erre da eta 54 urteko gizonezkoa hil da barruan

Etxekoak goizeko zortzietan ohartu ziren sutan zegoela baserriko ganbara; hilotza etxeko gela batean aurkitu zuten suhiltzaileek goizeko hamarrak aldera

baldu zen etxe guztira, «hamar minututan hartu du etxe guztiak sua». Bi etxebizitzetako bigarren solairua eta ganbara zeharo kiskalita gelditu dira eta teilatua eta ganbara bigarren solairura erori dira; kalte material handiak eragin ditu suak. Sutea zergatik piztu den ez badago garbi ere, ganbaran belar eta lasto ugari egoteak azkartu du suaren indarra.

«Suteaz konturatu garenean, gauza gutxi batzuk eta arropa batzuk atera ditugu etxetik, ganbara gainera eroritzeko arriskua baitzegoen», gaineratu zuen Asteasuko alkateak, Iñaki Amenabarrek.

Hildako gizonezkoa, 10:30ak

inguruan topatu zuten suhiltzaileek gela batean. Epaileak ikusi orduko eraman zuten gorpua autopsia egitera.

Ikerketaren zain

Arratsalderako kontrolpean zuten sua bertaratutako suhiltzaileek, ez zen zabaltzeko harriskurik. Dena dela, sua guztiz itzali arte egun batzuetako lana izango dutela gaineratu dute suhiltzaileek.

Herrizaingo Sailak aipatu duenez oraindik ez dakite ziur zerk eragin duen Urkidi baserriaren sutea eta ikerketa irekiko du Ertzaintzak gertatutakoa argitzeko.



Teilatua behera erori zen sutearen ondorioz. G. AZKUE

Herri Irratia
RADIO POPULAR

Herri Irratia-ak premia handiarekin behar du:

MERKATAL AGENTEA

Gipuzkoa eremurako. Berezko ibilgailua eskatzen da. Bezeroen kartera eta adostu beharreko baldintzak eskaintzen dira. Interesa dutenak bidali curriculum vitae-a.

Herri Irratia, Garibai 19, 20004 DONOSTIA helbidera, info@herri-irratia.com helbidera edo deitu 943 423 644 edo 943 43 02 24 telefono zenbakira.

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

ANOETA ▶ JAIAK

Haurrak bere saltsan ibili ziren jolasean

Txan magoaren emanaldia gaur izango da 17:30ean



Gorritiren erakustaldia, plazan. O. ESKITXABEL



Haur ugari mozorrotu ziren. O. ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Egitarau ofizialean, Jokulandia jolas parkea jarri zen plazan; saltoka eta brinkoka ibili ziren haurrak goizean eta arratsaldean. Txekor txikien aurrean korrika egiten ere gustura ibili ziren gaztetxoak.

Haur jokoak izan zituzten arratsaldean Jai alternatiboen egitarauaren baitan; jende ugari mozorrotuta ikus zitekeen, gainera. Txan magoaren emanaldia atzorako espero bazen ere, gaur izango da 19:30ean.

EGITARAUA ▶

JAI ALTERNATIBOAK

17:30. Txan magoa.
19:00. Sagardo dastaketa.
21:00. Bertso-afaria Sustrai Kolina eta Amets Arzallusekin.
Ondoren. Manifestazioa *PNV-EA, Anoetarron eskubideak errespetatu* lelopean.
23:00. Kontzertua, R, lleon eta Gaizkiñe taldeen eskutik.
Eguna argitzean.
I.Kantzontzilo eta Kulero Lasterketa.

EGITARAU OFIZIALA

11:00. Jubilatuen arteko toka txapelketa plazan.
11:00. Kalejira Loatzo musika eskolako soinu-joleekin.
16:00. Kulki joku tradizionalak herriko plazan.
19:00. Umeen eta helduen *play-back-a*.
22:30. Bertso musikatuak.
00:00. Txalapartaldi nagusia.
Ondoren. Brigantnya taldearen emanaldia.

GUTUN@K ▶



Kanpai soinuk berriz ere; kaka! (Haur Eskolaren inguruan)

Alegian elizarekin egin dugu topo; eliza instituzioarekin, boterearekin, hain zuzen ere. Betikoa.

Herriko apaizak, estolaz jantzita, pontifikatu egin du: «Frankoni edifizioan haur eskolarik ez; inolaz ere ez, gainera», azaldu du. Inork ez du ulertzen zergatik. Apaizak berak ere ez du inoiz inongo arrazoirik adierazi.

Horrelako jauntxokeriaren aurrean zer esan?

Gizon horrek (apaizak), bere mojek, inguruko taldeki-deek eta instituzio osoak Erdi Aroan daudela pentsatzen dutela dirudi. Antza guztia du, behinik behin.

Garai hartan (Erdi Aroan), *Behartsuen Ebanjeliotik* mila kilometrorra aldegin, zeruko gozoki eta infernuko suaz herriko jendeari txantaia hutsa eginez, jesukriston boterea lortu zuten.

Egun ere —eta Haur Eskolaren kasuan argi eta garbi dago (ikus nahi dutenentzat behintzat)— horrelako jokiera miserable, berekoa eta agintzailea erakusten ari da, ari dira.

Herrikoen hezkuntza zerbitzurako sortutako instalazioa da Franconi; baina beraien

gaztelu, beraien *txiringitoa* bihurtu dutenez, ez diote herriari utzi nahi, beraien ondusun propioa izango balitz bezala.

Eta publikoki emateko tajuzko arrazoirik ez dutenez, mutu gelditu dira, beraien publikoaren aurrean hain kalakariak direnak!

Beraien infernura joan daitezela!!!

Alegiako herriari zuzenduta:

Zuei, Alegiako gazteei, bikote gazteen gurasoei, senideei, herritar guztiei honako galdera luzatu nahi dizuet: bidegabekeria eta zapalkuntza honen aurrean zer? Guk ere mutu gelditu behar al dugu?

Horrelako indarkeriaren aurrean ezer egin gabe geldituz gero, berriz ere zapalduta geratuko ginatete.

Gure eskaera behin baino gehiagoetan modu onean bideratzen saiatu gaira. Eta kasu honetan, orokorrean dauden interes eta behar desberdinak modu egokiaz adosten behin baino gehiagoetan saiatu ondoren, horrelako zentzugabeko erantzuna jaso dugu.

Bada garaia, beraz, gure salaketa, gure desadostasuna eta gure nahia modu zuzenkiagok aldarrikatzeko.

Franconi Haur Eskola Franconi Fundazioko edifizio bertan sortu behar dugu. Eta, nahi izanez gero, sortuko dugu; dudarik ez izan.

EDUARDO TORMO ▶ ALEGIA



10 bidaiak zozketan

K a r i b e
T u n i s i a
I t s a s b i d a i a
D u b l i n
F i t e r o

Ekainaren 12tik aurrera



Euskaldunok behar dugun **berria**

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.
 Medikua: 65 23 39
Berastegi-Elduain. Medikua:
 68 33 61
Ibarraldea. Osasun ebc: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Orexa. Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
 67 53 90 (larrialdia)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Santa Maria I. Nafarroa 2
 (Tolosa). 65 4510. Plaza M.,
 Elbarren, 36, (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_public@tolosaldeko
 hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -
 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona_aiztondo@tolosaldeko
 hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22
 anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzaldea. 687 41 01 18.
 leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Taberna. Orexako taberna
 alokatzen da. Telefona:
 943 68 20 29.

GALDUTAKOAK

Zakurra. Zakur bat galdu da,
 Husky-a. Azkeneko aldiz Lizartza-
 Orexa inguruan ikusi da.
 Telefonoak: 943 72 24 68 /
 618 18 69 33.

LANA

Eskaintza. Neska bat behar da
 ebeko lanak egin eta ume bat
 zaintzeko. 943 67 58 95
 (19:00etatik 21:00etara).

OREXA ▶ INTERNETA

KZgune berria abian jarri dute ikastaro eta mintegi desberdinekin

Satelite bidezko Interneteko sarbidea ipini dute; herritar ugari erabiltzen du eskura diren sei ordenagailuak



Goizeko interneteko oinarriko ikastarora sei lagun joaten dira egunero. D. GIBELALDE

DANI GIBELALDE

Abenduan irekitzekoa zen KZgunea, baina banda zabala jartzeko arazoak zirela medio, joan den astean zabaldu zuten. Azkenean, satelite bidezko sarbidea eta sei ordenagailu jarri dituzte. Herritarren artean erantzun ona izan du KZgune berriak; jendeak ikastaro eta

mintegi desberdinetan izena eman du. 09:00etatik 13:00etara dago zabalik KZgunea, eta nahi duenak nabigatu dezake bertan. Hilaren 21etik amaiera arte, ordutegia aldatu egingo da (16:00etatik 20:00etara). Gaur, esaterako, 11:00etatik 13:00etara, Acrobat Reader eta Itzultzaileak mintegia eskainiko dute. Ekainaren 18an,

ordu berean, Zure ekipoa konfiguratu izeneko izango da.

Ekainaren 21etik aurrera 18:00etatik 20:00etara interneteko oinarriko ikastaroa emango da (20 ordu) eta hilaren 28tik aurrera irudi digitalen tratamendurako ikastaroa. Mintegi eta ikastaro desberdinetan aritu nahi duenak KZgunean izena eman behar du.

GAZTELU ▶

Jon Goikoetxea 'Boli'-ri omenaldia egingo diote bihar

Jon Goikoetxea *Boli*-k Everest munduko mendirik garaieneko gailurra zapaldu duela eta bihar omenaldia egingo diote 20:30ean udalategian. Ondoren, 21:00etan Muxarra elkartearen afaria egingo dute egindako balentria ospatzeko. Afarirako izena emateko gaur da azken eguna. Telefono zenbaki hauetan egin daiteke izen-ematea: 943-67 18 40, 608-77 28 01, eta 635-73 82 73.

IBARRA ▶

Mus-tximista Txapelketa gaur Txairon

Ostiralero bezala, gaur ere Mus-tximista Txapelketa jokatuko da Txairon kafetegian. Parte hartu nahi duten bikoteek 22:30ean eman behar dute izena. Sariak honakoak dira: bildutako diruaren %40a irabazlearentzat, 30%a bigarrenarentzat, %20a hirugarrenarentzat, eta kafa osatua laugarrenarentzat.

IBARRA ▶

Gimnasia Erritmikoko jaialdia gaur

Belabieta Gimnasia Erritmika eskolaren kurtsu amaierako jaialdia izango da gaur 18:00etatik aurrera Belabieta kiroldegian.

TOLOSALDEA ▶

HITZA-ko finalerdietarako sailkatuak

HITZA Pilota Txapelketaren barruan, kadete mailako finalerdietarako txartela eskuratu zuten herenegun Goikoetxeak eta Iturriozek. Izan ere, Bidanian herenegun jokatutako final-laurdenetarako bi partidetan Goikoetxeak 18-6 irabazi zion Telletxeari eta Iturriozek 18-13 Ojueli. Hilaren 27an dira finalak.

IBARRA ▶ MENDIA

Haitzetan Rajuren igandeko irteeran izena emateko azken eguna da gaur

Gorritira joango dira; izen ematea Atari, Zubiaurre, Denak eta Rakun

D. GIBELALDE

Haitzetan Rajuk mendi irteera bat antolatu du Gorritira igandeko. Gaur da azken eguna izena emateko Ibarrako Atari eta Zubiaurre, edo Tolosako Denak eta Raku tabernetan.

Antolatzaileek herritarrek ibilaldian parte hartzera gonbidatu eta animatu nahi dituzte. Hori bai, parte hartzeko izena ematea beharrezkoa dela azpimarratu dute.

Igandean 10:00etan irteerak dira ibiltariak plazatik Gorritira

joateko. Ibilaldia lasaia izango da, lau ordu ingurukoa. Gorritin arkume jatea izango da bazkaltzeko, sagardo eta ardo frexkoak lagunduta. Txalaparta erakustaldirik ez da faltako, eta ondoren etxera bueltatzeko ere ez da arazorik izango.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

ARESO ▶ KULTURA

Kultur egunak bihar-etzitan izanen dira 'Baserria gogoan'

Aurten bi kultur egun antolatu ditu Kultur Taldeak eta igandekoa baserriarrei omenaldi gisa eskaini nahi diete



Horrelako azizien erakustaldia, igandean. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bihar arratsaldean hasi eta igande gaua arte ez da ikuski-zunik falta izanen herrian, zahar nahiz gazte, goizez nahiz arratsalde, egitarau bete-betea prestatu baitu Aresoko Kultur Taldeak asteburu honetarako.

Biharko eguna umeei bideratutako ekitaldiz bete dago iragarrita. Hain zuzen ere 17:30etik aurrera jokoak izanen dituzte herriko plazan bertan. Joko hauek, soskor-bilketa, aulki-dantza, eta hauen gisako beste mordo bat, herriko gazte talde batek prestatu ditu eta beraiek izanen dira ekintza horren gidari. Nahikoa ariketa egin ondoren, arratsaldeko banatuko zaie bertara bildu diren ume guztiei, eta ez nolana nahikoa gainera, otartekoan jan ondoren txokolatea ere hartzeko aukera izanen baitute.

Sabela bete eta gozo-gozo ipuin polit bat entzuteran joanen dira gero udaletxera, zehazki *Ilargiaren lapurra* kontakizuna entzuteran.

Igandea ere ez da egun makalagoa izanen, ordea. Antolatuzaileen esanetan «herrian baserriaz bizi direnei esker onez-

ko eta aintzatespeneko zerbait egiteko gogoia, aspaldikoa da eta aurten iritsi da», nonbait, herria lehen nekazaritzatik eta abelzaintzatik bizi zen, baina aspaldi samar honetan asko aldatu omen da egoera eta jadanik oso gutxi omen dira bizibidea horretatik bakarera ateratzen dutenak, «herrian aziziarik apenas dagoen, gehienak mendiko bordetan daude».

Baserritarrei omena

Zailtasunak zailtasun, oraindik baserriko lanari eusten diete-

EGITARAU ▶

EKAINAK 12, LARUNBATA

17:30. Haurrentzako jokoak plazan.

Ondoren. Merienda.

19:30. Ipuin kontalaria udaletxean.

EKAINAK 13, IGANDEA

Goizean zehar. Azizien erakusteta plazako larratsean.

13:00. Herriko dantzari txikiak plazan.

Ondoren. Herri kirolak plazan.

14:30. Bazkaria plazako karrapean.

Bazkalondoan. Jon Maia eta Xabier Legarreta bertsoariak.

Arratsaldean. Epelde eta Larrañaga trikitilariak.

nak «animatzeko eta iraun dezanen eskatzeko» beraz, egun polita igarotzeko aukera izanen da herrian eta goiz-goizetik, plazako larratsean herriko hainbat baserriarrek beren azizien erakustaldi jarriko dituzte.

Bestalde, dantzariak, Asier Pellejero eta Migel Anjel Sukuntza gazteen arteko herri kirolerako norgehiagoka, bertsoariak, trikitilariak... ere badira. Eta festa egun osoa izateko, bazkaria ere ez da faltako. 60 bat lagunentzat prestatzeko asmoa dute eta bertara biltzen denak, jan-edana izanen du, 12 euroren truke.

BULDAIN ▶

Bulldain
INMOBILIARIA

Amazabal kalea, 37-behea
31880 LEITZA (Nafarroa)
Tel.: 948 51 05 34
mug.: 649 47 66 15
e-mail:
jmbulldain@eresmas.com

Berrobi. Hiru etxe unifamiliar adosatuak salgai. 160 m²-ko bizitza, garajea 50 m²-koa eta lorategia 40 m²-koa, 306.516,1 euro.

Gorriti. Etxe unifamiliar eraikitzeko. 1.500 m²-ko lurra eraikigarria salgai.

Leitza. Herriatik 10 km-tara, Leitzelarrean, borda eta txabola salgai, 8.500 m²-ko lur-eremuarekin. 90.151,81 euro.

Leitza. Pisu eta etxe bat salgai.

Leitza. Pisu bat alokatzetan da herri erdian. 360 euro/H.

LEITZA ▶ EUSKARA

Uda-ikastaroetarako matrikulazioa irekita

Urtero garai honetan hasten da euskara ikasteko barnetegien antolaketa lana



Leitzako IKA euskaltegioko irakasleak. J.ASTIBIA

J.ASTIBIA

Udan zehar, barnetegian ematen diren ikastaroetan matrikulatzeko epea irekita dago dagoeneko Leitzako euskaltegian ere, bertako arduradunek HIRZARI jakitera eman diotenez.

Leitzan hiru ikastaro ematen dituzte, bi uztailan (5etik 18ra bata eta 19tik abuztuaren 1era bestea) eta bakarra abuztuaren (2tik 15era). Hiru ikastaroek ere bi asteko iraupena dute, 90na orduko eskolekin. Antolatuzaileek zehaztu dutenez, larunbat arratsaldetan, nahiz igandetan («taile-rrak, irteerak, txangoak eta bertako giroa ezagutzeko eta bizitzeko moduko aukera ezin hobekak izanen dituzte ikasleek»).

Euskara ikasi nahi duenarentzat, «giro euskalduna, gure hizkuntza beharrezko sentitzea, oso garrantzitsua

da. Eta barnetegian egonez, erabat, 24 ordutan euskara entzunez eta mintzatuz, eta herrira atera eta hori horrela egin daitekeela egiaztatzea, ikasleentzat bultzada handia da» adierazi eta «garai honetan herria bizi-bizi egoten da eta giro oso polita» gaineratu dute.

Matrikulazio epeei dagokionez, ikastaro bakoitza hasi baino aste bete lehenago itxiko direla ohartarazi dute IKA-ko arduradunek.

Gaur HZ-ren hitzaldia

Gaur ostirala, 20:00etatik aurrera, Herriarren Zerrenda Plataformaren hitzaldi-mitina burutuko da udaletxeko Karrapean, zerrenda horretako kideen parte-hartzearekin. Ekitaldi hau datorren igandeko Europako Hauteskunde kanpainaren baitan kokatu behar da.

LEITZAKO UDALAK
BEHAR DU:

IDAZKARIA

BETE BEHARREKOAK:

* Formakuntza akademikoa: Zuzenbidea, Soziologia, Zientzia Politikoak.
* Euskalduna izatea (hitz egiteko eta idazteko gaitasuna izatea)
* Nafarroako Enplegu Zerbitzuan edo INEMen izena emana edukitzea.

ESKAINITZEN DA:

* Lau hilabete inguruko lan kontratua
* Administrazioako A maila

Kurrikuluma eta dokumentazioa Leitzako Udaleko bulegoetan utzi behar dira ekainaren 22an 13:30ak baino lehen.

Informazioa Cederna-Garalurreko Lan Orientazio eta Kudeaketarako Zerbitzuko 619 82 92 89 telefonon (Oskia)

LEITZAKO
UDALA



Harpidedunei banatua ▶ 2004ko ekainaren 11, ostirala ▶ II. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

21

holzena

15

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



943 30 43 46

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Alburuz, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzola, Anoeta, Balaran, Berasteg, Edoan, Hernialde, Ibarra, Iruia, Larrail, Leizaburu, Lizartza, Ondean, Oñesa, Tolosa, Villabona, Zuzurki

Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurantza. Kultura Saila



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Berastegi. *Rechace imitaciones* ikuskizuna. Iraola eta Pagadiren eskutik. Gaztebean.
Larraul. *Hitzak patriketan* antzezlan. 17:30ean, herriko frontoian. 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat, Aitzpea Goenaga eta Iñaki Beraetxe aktoreekin.
Tolosa. *La Marra:* Tic-tac taldearen eta Kultur Etxeko antzerki tailerreko ikasleen emanaldia. 22:30ean, Leidor zineman.

DEIALDIAK

Gaztelu. Bihar ongietorria egingo zaio Jon Goikoetxea *Boliri* Everestera igo delako, 20:30ean, udalebean. Ondoren, 21:00etan, afaria egingo dute Muxarra elkarteak.
Ibarra. Sendi ekintzaren San Bartolometako zozketako txartelak salgai dira Atari, Zubiaurre, Danon Txokoa, Gurasoen elkarte, Arkaitz Azpi eta Txumitxa tabernetan.
Ibarra. Belabietako Gimnasia Erritmikako Eskolaren kurtso amaierako jaialdia izango da 18:00etatik aurrera Belabietako kiroldegian.
Leitza. Kirol Eguna. Bihar, 11:00etatik aurrera, kiroldegian.
Tolosa. Hirukideren ikasturte amaierako festa bihar Eskolapioetan egun osoan: meza, jokuak, kirolak, tailerrak,

antzerkia, bazkaria, mus txapelketa, puzgarriak, ikuskizunak, pailazoak, buruhandiak, txaranga, erakusketa...
Tolosa. III. Pako Eguna, bihar: 10:30ean: basket hirusak; 11:00etan: rokdromoa; 12:00etan, esgrima; 14:00etan, bazkaria; 16:00etan, patinekin itzulia Arramele zubitik abiatuta; 17:30ean, Rondilla kalean zehar, hockey patinen gainean, eta *skate park*-a; 18:30ean, *graffiti*-ak eta mural margoketa.
Tolosa. Betizu Show. Betizu talde berriaren kontzertua. Bihar 19:00etan, Leidorren. Ero Etxe elkarrekin antolatuta, 25. urteurrenaren baitan. Sarrerak salgai daude Kultur Etxean, 9 eurotan.

ERAKUSKETAK

Ibarra. Pintura tailerreko ikasleen lanak. Bihar arte Benito Izagirre kultur etxean.
Tolosa. Anjel Cuervo bidaieri eta abenturazale tolosarraren argazkiak. Larunbata arte egongo dira, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Faustino Aranzabalen margolanak. Uztailaren 3a bitarte Aranburu Jauregian.
Tolosa. M. Carmen Gorbearen koadroak. Hilaren amaiera arte Saikin tabernan.
Tolosa. Charo Medranoren koadroak. Hilaren bukaera arte, Lanbroa tabernan.

IPIUIN KONTAKETAK

Aduna. Ipuin ordua: *Iker oker.* Maite Frankoren eskutik. 18:00etan, liburutegian.
Alegia. Ipuin kontaketa Nerea Herrarteren eskutik 17:30ean udal liburutegian. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.
Baliarain. Nerea Herrarte ipuin kontalariaren saioa. 18:30ean, udalebteko kultur gelan. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta.

JAIK

Anoeta. Egitarau ofiziala. 11:00. Herriko jubilatuen arteko toka txapelketa plazan.
 11:00. Kalejira Loatzo musika eskolako soinujoletan.
 16:00. Kulki joku tradizionalak plazan.
 19:00. Ume eta helduen *play-back*a plazan.
 22:30. Bertso musikatuak frontoian.
 00:00. Txalpartaldi nagusia plazan.
 Ondoren. Brigantya taldearen emanaldia.
Anoeta. Jai alternatiboak. 17:30. Txan magoa.
 19:00. Sagardo dastaketa txosnagunean bertsolari, trikitilari, albokari eta txalapartariak alaiturik.
 21:00. Bertso afaria: Amets Arzallus eta Sustrai Kolina.
 Ondoren. Manifestazioa herriko kaleetan zehar *PNV/EA, anoetarron eskubideak errespetatu* lelopean.



HZ-ren erakusketa

VILLABONA ▶ Herritarren Zerrendak jarri duen erakusketa Europar Batasunaren historia, instituzioen eraketa, gertakarien kronologia edota HZren lan ildoan azaltzen dira. Euskaltegian paratu dute eta gaur izango da ikusteko azken aukera, 18:30etik 20:30era. GARAZI AZKUE

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Eneida Saldias (Anoeta).

Gaur 4 urte. Zorionak ebeko guztien partetik.



URTE ASKOAN
 Arkaitz Balda Usandizaga (Alegia). Atzo 2 urte. Zorionak aitabok eta amabok.



URTE ASKOAN
 Amane Aizpuru Zinkunegi (Alegia). Gaur urtebete. Zorionak ebeko printzesa. Joanes, Xumai, ama eta aitaren partetik.

HITZA,
 zorion agurren
 tartea
 Mesedez,
 ekarri argazkia bi egun
 lehenago. Mila esker!

HITZAren egoitzara
 (Araba etorbidea, 5
 behea - Tolosa)

DENDA HAUEK Tolosaldeko HITZAren LAGUNTZAILEAK DIRA Egin itzazu zure erosketak bertan

- Pottoko Haur Jantziak
- Nerea Lentzeria
- Mikel Izagirre Ilepaintzaileak
- Iriarte Lentzeria
- Bereziak
- Factory
- Elite Kirolak
- Bazar Amiano
- Kopibat
- Cid Bitxitegia
- Lizarribar Oinetakoak
- Arri Oinetakoak eta Konponketak
- Desgaste Oinetakoak
- Aralar Kirolak
- Muebles Garces
- Poxpolin
- Haur Jantziak
- Oski
- Garikano 1815
- Azpiko Arropa
- Amaia Lentzeria
- Kiara Bitxitegia
- Poxpolin
- Enmarkazioak eta Opariak
- Milar Electro-Hogar
- Imen Bitxitegia
- Pressto Tintoreria
- Oñativia
- Lurrindenda
- Elola Altzariak
- La Vasconia
- Axular Oinetakoak
- Iratzar Eroiategia
- Zumeta
- Elektrogailuak
- Arretxe Mertzzeria
- Ugarte Bixidenda
- Bixilore
- Juan Luis Bitxitegia
- Ezenarro Leihoak
- Kaniak arropa denda

HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREN
 %5*-eko BEHERAPENA IZANGO DUZU ZURE EROSKETAN. Martxoetik ekainera

EGIN ZITTEZ HARPIDEDUN!

*Promozio hau ez zale beste beherapenei gehituko. Eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da.

press to kalitateko garbiketa azkarrak

EDREDOIA GARBITZEAGATIK EDO ARROPA KONPONTEAGATIK:
 JANTZI BATEN GARBIKETA OPARI

ALFONBREN GARBIKETA: 7,50€/m²ko
 San Frantzisko, 19 • TOLOSA • 943 65 38 77